

GIG 49

UGARTEBERRIKO ERREKA AHOKATUA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**

BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,25**

KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Lasturko poljearen goialdea 300 metro inguruko altueran dago, eta han goian ere begien bistako gauza da maila freatikoa jaitsi izanaren ondorioz poljearen lehengo maila zulatzen ari dela gaur egun (GIG 45).

Oraingoan, Ugarte-berri baserriaren inguruetan ageri da zulatze hori: erreka nabarmen ahokatuta dago poljeak definitutako oin-mailan. Errekak forma biribileko meandro polit askoak marrazten ditu, gainera, eta uholde-lautada txiki batzuk ere bai, orain larre-itxurako mantu berde batez estalita daudenak. Errekak oinarriko paleomailan egin duen ebakidura 10-15 metro ingurukoa da. Batere urik gabe eta landarez estalita egon ohi da erreka gehienetan, eta horrek are deigarriagoa bihurtzen du fenomenoa, erabat begien bistakoa gertatzen baita batere urik ez daraman morfologia hori ibai bati dagokiola. Errekak ura daramanean, Ugarteberriko sarbegian behera iragazten da.

200 metro beherago, harribilen betekinak ageri dira sarbegi ere baden kobazulo baten sarreran, eta horrek garbi adierazten du maila freatikoa jaitsi aurretik erreka kobazuloraino iristean gain zeharkatu ere egiten zuela.

NOLA BERTARATU

Lehenik eta behin, Lasturko harrobira joan behar da, Gi-3292 errepidea hartuta Sasiola auzoan, edo Gi-3210 hartuta Itziarren. Ugarte-berri baserria harrobiaren ondoren dago, 500 metrora.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Ugarteberriko erreka ahokatuaren ikuspegia, aparkalekutik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 554954 m / Y= 4786931 m / Alt.= 283 m



Ugarteberriko erreka ahokatua, gertutik.